

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Herriko euskalkia ikertuko du Badiharduguk /08

DANBAKA

Herriko hiru talde aurkeztu dira /09

LEINTZ GATZAGA

Jakion mermeladak egiten buru-belarri /10



“BAGOAZ AURRERA”

**KURTZEBARRI BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTOA
INAUGURATZEKO EGUNA IRITSI DA**

GARRAIOA: ARETXABALETAKO AUTOPISTA TALDEA/5 • KIROLAK: MARKEL URIARTE/6

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 23
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

DOMEKA, 24
FRAILE. Herriko Plaza 10..... 943 79 21 99

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskalategia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murruxiko ME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 79 74 58
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdiak 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00, 12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:30

SANTA RITA
Domeketan: 09:00
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: LARRIÑO
Domeketan: 12:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GELLAO
Domeketan: 11:30

OHARRAK

SU TA GAR ETA OZEN TALDEEN KONTZERTUA
Kurtzebarri BHIk antolatuta, 22:30etik aurrera kirol etxean. Arrasateko Ozen taldea eta Su Ta Gar arituko dira. Sarrerak: 10 euro leihatilan, eta 8 aurrez erosiz gero. Arlutz tabernan eros daitezke sarrerak.

KURTZEBARRI ESKOLAREN INAUGURAZIOA
Bihar, zapatua, inauguratuko dute Kurtzebarri BHI. 10:30ean, hala nahi dutenek ikastetxea ikusteko aukera izango dute. Gainera, argazkiak jarriko dira eraikina zelan berri dute ikusteko. 12:00etan, gonbidatuei harrera herriko plazan. Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako alkateek esku hartuko dute, baina baita Jaurlearitzako Hezkuntza Sailekoek eta Antzibar eraikuntza enpresako arduradunek ere. Ondoren, luntxa plazan, trikitilariak alaituta.

GASTRONOMIA ETA FOLKLORE JAIALDIA
10:30ean, talde folkloriko guztien etorrera, eta dantzen emanaldia. 11:00etan jakien salmenta herriko plazan, eta 12:30ean dantzen emanaldia. 18:00etatik 20:00etara, dantzak eta patxaran lehiaketa.

LORAMENDIRENAGENDA


'LAOS BIZIKLETAN'
Datorren egunean, hilaren 28an, bidaiaren inguruko hitzaldia izango da Udaltxeko Zaharrear, 19:00etan. *Laos Bizikletan* izenburua du hitzaldia, eta zazpi lagunek egindako bidaiaren berri emango da diapositiben laguntzarekin.

ZANKO IKASTAROA
Gaur hasi eta azaroaren 5era arte zanko ikastaroa izango da aukeran.

ORAINDELA 9URTEARETXABALETAN

Baimen barik antena jarri Apotza-Etxebarrin

Urriaren erdialdean, AIRTEL enpresak telefono mugikorren erabilerarako 30 metro inguruko antena jarri zuen Apotza-Etxebarri auzoan. Airtel enpresak teknologia digitala erabiltzen zuen ordurako, eta aurrera begira ere, teknologia mota hori gomendatu zuen.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Gizonkerixa"

Gizonkerixak egin nahi dittuenaren iharduera.
— *Purua erre, pattarra eran... gizonkerixak eitte ibili zan gure mutikua, ta gero botaka.*



LIBURUTEGIKOTXOKOA



ZIRKULUA
Andoni Urzelai
Erein, 2004
182 orrialde

Andoni Urzelai aretxabaletarren bigarren nobela da honako hau. Lehenarekin, Irun Hiria literatur saria irabazi zuen.

Nobela beltza, entretenigarri modura erraz irakurtzeko liburua egin du Andonik. Komunikabideen eragina ardatz hartuta, CESIDeko buru batek, kazetari batek eta psikologo batek ETArekin amaitzeko Big Bang plana egingo dute.

Hortik abiatuta, gai asko jorratzen dituen istorioa da, komunikabideen boterea, Euskal Herriaren egoera, boterea eta ospea lortzeko gogoia, eta abar.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

Adi!

Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak! Zorionak!

EKAINAREN 7tik AURRERA
Zorion agurrak
ASTELEHENEKO
GOIENKARIAN!

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Gainera...

Zorion agurrak, SMS bidez!

Senitarteko, lagun, ezagun edo gustuko duzun neska/mutila bere urtebetetzean zoriondu nahi baduzu, Asteleheneko Goienkaria-k beste aukera bat emango dizu: SMSa bidaltzea.

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Lie


LURRINDEGIA OPARI DENDA

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA

ATREBENTZIAEZPADA/ Herriko berbetie galtzen edo aldaketan doielara uste dozu?



IZASKUN IRURE
langilie



LEIRE LARDIZABAL
langilie



JON ARRIOLA
langilie



MONTXO LOPEZ
langilie



ROSAMARI ALDAI
langilie



JOSE LUIS CABALLERO
langilie

Ez dot uste, antzera berba egitten da. Hala eta be, neuk etxien ez dot hamengo berbetie ikesi. Aitte Zestua-kue izenda, hango euskerie ikesi neuen. Hamengue ez dot ikesi, gatxa da.

Neuk uste dot zaharrek hobeto egingo dauela berba hamengo euskalkixen. Azken urtiotan espainole-tik berba asko hartu dittu-gu, eta horrek aldatuko euen herriko berbetie.

Ez dot uste askorik aldatu danik. Geuk etxien ikesi-ttekie egitten dogu. Umie-tan ikusten da eskolan ike-sittekie egitten dauela, bai-ñe etxekuek inportantzia haundixe dauko.

Asko aldatu da. Geure semiek ez dau aman moduen egitten, ezta aitte-ttekie eta amamak egitten dauen moduen be. Edozein aditz esaten daue. Zaha-rrauek hobeto egitten daue.

Argi dauket, baserrixetan askoz hobeto berba egitten da hamengo euskerie. Neu, hala eta be, Oletakue naz, eta uste dot han gehixau gorde dogule bertako berbetie. Aldaketan dabil, bai.

Ez dot uste askorik aldatu danik hamengo berbetie, ez behintzet Aretxabaletan. Hamengo jentiek ebalten dittu berba diferentiek. Hala eta be, neu euskaldun barrixe naz.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK AUTOBUS GELTOKIA Herritar batek adierazi digunez, erdialdeko autobus geltokian ez dago autobusen ordutegirik. Beraz, aurrez beste nonbait begiratu behar duzu autobusen ordutegia. Baina ez hori bakarrik. Eurria egiten duen egumetarako ez dago inolako babeslekurik. Agintariek eta Pesa konpainiak zerbait egin beharko lukete guk garraio publikoa erabiltzea nahi badute. /M.A

ETABARRUAN...

HEZKUNTZA /04

Resu Abasolori elkarrizketa

Kurtzebarri BHIko zuzendaria da Resu, eta inaugurazioa dela eta, elkarrizketa egin diogu.

GARRAIOA /05

Autopista Taldea eratu

Aretxabaletako Autopista Taldea eratu da, Bidegi eraikuntza proiektua egiten ari baita.

KIROLA /06

Markel Uriarte lehenengo

Markel Uriarte aretxabaletarra lehenengo sailkatu da Euskadiko Trialsin Txapelketan.

ASTEKODATUA

288

HAUTAGAIREN ESKARIAK ONARTU DITU BRUES-EK

Udalak finkatutako prezioan etxebizitzaren bat lortu nahi duten 288 hautagairen eskariak onartu ditu Brues eraikuntza enpresak. Guztira, 504 lagunek egin dute eskaria.


BESTEKEKESANA

“Aretxabaletan kokatua dagoen Copreci kooperatibak, urriaren 22an inauguratuko du

Txinako lantegi berria, Zhuhai eskualdean, Hong Kong hiritik gertu dagoena. Era horretan, nazioartean aurrerapauso handia emango du kooperatiba aretxabaletarrak, eta etxe tresna elektrikoaren osagaietarako hornitzaile garrantzitsu bilakatuko da. Copreci China lantegiaren jabetza Coprecirena da, eta bi milioi euroko inbertsioa egin behar izan dute. 100 lagunetik gora egingo dute lan bertan, eta Txinako merkaturako eta inguruko bezero herriendako osagaiak egingo ditu. (...) Copreci aldaketak egin behar izan ditu barne antolaketan, dauden tokian daudela, bezeroei erantzun ona emateko helburuz.

JOXEBI RAMOS
‘DV’/04-10-20

HERRITARRENBERBAK/ Lore Martinez



*KMK 05:
Plazara!*

Datorren urtean kilometroak etxean ospatuko dugu, Arizmendi ikastolari horrela egokitu baitzaio. Dagoeneko ari dira antolatzen, eta sarritan berba egingo dugu jai horren inguruan. Baina, Kmk 05, egun polit bat baino askoz gehiago izango da.

Orain dela hilabete batzuk, epaitegi bateko idazkari batek esan zidana kontatu nahi dizuet. Hirietan ezik, herrietan, informatikak ez zuela inongo presentziarik adierazi zidan. Esan zidan: “badakizu, euskaraz hitz egiten den herrietan jendeak ez du ordenagailuetaz, informatikaz asko ulertzen, eta gazteleraz ez dira ondo moldatzen...” Atximurka egin beharra izan nuen, ezin nuen sinetsi, 2004. urtean, aurrean neukan hark esaten zidana. Imajina dezakezu entzun nuenarekin nola sentitu nintzen. Arnasa sakon hartu arren, ezin izan nintzen isildu eta gehiago esango dut, derri-gortua ikusi nintzen ez isiltze-ra...oraindik Euskal Herrian

horrela pentsatzen duen jendea dagoela ikustea ere? Nola atera daiteke horrelako ondorio-rik? Oraindik bada jenderik uste duena euskaraz bizitzea atzerapen bat dela, eta euskaraz heziketa jaso dugunok kulturagabe batzuk garela? Ikusten denez, hala da, bai.

“Idazkari batek esan zidan, euskaraz egiten den herrietan informatikak ez zuela inolako presentziarik”

Baina esan bezala, lasaitasunez esan nion ez nekiela, arraroa iruditzen zitzaidala, nik heziketa euskaraz jaso dudala, euskaraz ere hitz egiten nuela eta informatikari buruz zertxobait banekiela, eta ni bezala, nirekin

batera ikasi zuten guztiek. Egia esan nahiko harrিতuta gelditu zen. Bera harrিতuta eta ni pozik eta ase.

Horregatik, oraindik lan asko dago egiteko gure hizkuntzaren alde, gure kulturaren alde, horregatik da garrantzitsua euskarazko eta kalitatezko heziketa jasotzea. Horregatik da garrantzitsua kmk 05, eta guzti horregatik, animo eta eskerrik asko kmk05 posible egiten ari zireten guztioi.



BESTEAKBESTE

M. J. Aretxaga

Zelako erregaluek

Hamar bat urte barru erretirue hartuko dot, eta exigie esan, dezietan nau. Izen be, herriko erretirauen egunien izeten dien premixuek sekulakuek izeten die.

Fan dan zapatuen kruzerue zotz egin, eta **Joxe Benito Ayastuiri** tokau. Zelan ez, segitxuen nobixa mordue urten jakon gizonai. Baina harek etxetik urtendakuen alabiekin berba eginda euken, eta biajia tokauz gero, berakin joango zala berbie emun eutzon. Udabarrixen edo juengo ei die Meditterra-neotik kruzeruen. Kontuen eukizue, kruzeruetan kapitanaz afarixa izeten dala, eta trajiez fatia biherrezkue dala. Niri holan kontau doztie.

Baina atxabaltar gehixau be urten zan, pozozik kirol etxetik. **Ana Mari Aretxagai** telebisiñue tokau jakon. Baiñe **Ana Mari Tranpai**, izen be herrixen bi andra daz izen eta apellido horreikin, eta bixak jaiki zien telebisiñue hartzen. Eskerrak bigarren apellidue diferentie daukien, bestela... Eta **Pilar Ibabek**, barriz, Aretxarteko txartela jaso euen. Holan ba, gratis errekauek eitteko aukerie izengo dau herriko denda batzutan.

Eta premixorik jaso etzeuienek? Ba, beti moduen, datorren urtien izengo da esan euien.

ELKARRIZKETA

RESU ABASOLO/KURTZEBARRI BHI-KO ZUZENDARIA (DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA)

“Jendeak miretsi egiten du gazteei zuzendutako eskola herriko plazan egotea”

MARIA AGIRRE

Pozik antzematen zaio Resu Abasolori. Aurten 25 urte beteko ditu irakaskuntzan, eta dio hasi zenean ez zitzaiola burutik pasatzen egungo egoerara iritsiko zirenik. Kurtzebarri eskola nazionala zenean hasi zen Resu.

Bihar inauguratuko duzue herriko plazako eskola berria, Bigarren Hezkuntzako Institutua izango dena. Aurrerapauso handia izango da?

Eraikin berri honek jendarean sendotzen gaitu. Espazioz askoz ere hobeto egongo gara, baina irakatsi, lehengo moduan irakatsiko dugu. Bestalde, 12-16 urte bitarteko gazteei toki bat eskaintzea inportantea da.

Zenbat ikasle ari da ikasten bigarren hezkuntzan?

145 ikasle ditugu, Aretxabaletaoak, Eskoriatzakoak eta Leintz Gatzagakoak.

Eraikin berriarekin, baliabideak asko hobetuko ziren.

Batetik, laborategia egokitu dugu lehengo eraikinean. Eraikin berrian, ikus-entzunezkoei zuzendutako gela antolatu dugu, Internet eta pantaila digitala barne. Sarri joango dira ikasleak bertara. Beharbada, nobedade handiena da gela guztietan Interneten nabigatzeko ordenagailu bi jarri ditugula, eta halako baliabideak dituen lehengo ikastetxea garelara diote. Egia esan, irakasteko modua aldatuz doa baliabide berrien eraginez. Nik esango nuke espazioa oso ondo aprobetxatu dugula, kanpotik lehengo modukoa da eraikina baina barrutik ez du zerikusirik. Hala ere, bihar eta aurrerantzean, hala nahi dutenek izango dute eraikina bisitatzeko aukera.

Eskolak indartu egingo ote du herriko plaza?

Bitxia da gertatzen dena. Hezkuntzako edozein arduradun edo irakasle lehenengo aldiz etortzen denean, harrigarria iruditzen zaio eskola herriaren erdialdean egotea. Ohikoagoa da gazteen-dako ikastetxeak erdialdetik kanpo egotea. Hona datozenek miretsi egiten dute herri batek adin honetako gazteei herriko plaza eskaintzea. Plaza indartuko duen ala ez? Nik uste dut eskola honek eskain ditzakeela gelak beste zeregin batzuetarako. Kontua ez da arratsaldean eskolak bukatu eta dena ixtea.

Udalaren inplikazioa zenbaterainokoa izan da?

Udalaren aldetik atentzio aparta jaso dugu; mantentze-lanen gaia, esaterako, ezin hobeto eraman dute. Orain, institutuan, arlo hori guk kudeatu behar dugu, eta kostako zaigu Udalak bezain ondo egitea.

Bagoaz aurrera leloa aukeratu duzue. Norantz baina?

Dugun erronka handiena da hona datozen ikasleek heziketa osoa jasotzea, hau da, pertsona bezala osoak izan daitezela. Uste dut arlo horretan aurrera goazela, emaitzek hala diote. Izan ere, emaitzekin oso adi egoten gara, jarraipen zorrotza egiten dugu, eta emaitzek erakusten digute bide oso onetik goazela. Hau da, hemen ikasten duten ikasleek prestakuntza ona jasotzen dutela gerorako, ondo moldatzen dira.

Azkenaldian sumatzen da eskualdean kompetentzia dagoela hezkuntza eskaintza desberdinen artean.

Hori hala da, kompetentzia dago, eta nik uste sana dela. Hemengo familia batek bata edo bestea aukera dezake, eta garrantzitsua da aukeratutako horrekin harro egotea. Nork bere ibilbidea egin behar du, gogoz eta kritiko izanik. Kompetentzia egoteak ez du esan nahi onenak garenik. Alde onak ikusi nahi dizkiot kompetentziari.



MARIA AGIRRE

“Emaitzekin adi egoten gara, eta emaitzek erakusten digute bide onetik goazela”

Nork bere bidea, baina gai batzuetan elkarlanari atek zabalduz?

Elkarlana gero eta gehiago landu behar dugu. Gizartea denontzat da bat, eta adin jakin bateko ikasle guztiek ezaugarri

“Kompetentzia dago, eta hori sana da. Nik alde onak ikusi nahi dizkiot kompetentziari”

antzerakoak dituzte. Ildo horretan, eskola kirola, adibidez, urrats handiak ematen ari den arloa da. Edo zergatik ez gurasoen eskola antolatu Aretxabaletan? Gauza polita litzateke guraso guztien-dako gun bat egotea.

IRIARTE

Umeen denda

Helduen lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea 3
ARETXABALETA
Tel. 943 79 29 26

Maritxu
drogeria
mertzzeria

Araba Ibilbidea 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

Martin
erloju-denda

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

GARRAIOA/ Auzoetan bizi diren bizilagunek parte hartzen dute taldean

Aretxabaletako Autopista Taldea eratu dute hainbat lagunek

M.A

Bidegi enpresak finkatuta du zein ibilbide jarraituko duen autobideak Aretxabaleta zeharkatzerakoan. Orain, berriz, eraikuntza proiektua ari da egiten, eta une hau aprobetxatu nahi izan du kaltetuekin harremanetan jartzeko, bereziki auzoetan bizi direnekin.

Aretxabaletako Autopista Taldea izena du kaltetuen taldeak, eta dagoeneko hiru bilera egin dute Bidegiko arduradunekin. Aretxabaletako Autopista Taldekoek hainbat iradokizun egingo diote Bidegiri, eta ondoren, eraikuntza proiektua onartuko du autobidea kudeatzen duen enpresak. Jarraian, alegazioak aurkezteko aukera ere izango dute hala nahi duten kaltetu guztiek.

IRAILEAN ERATU ZEN TALDEA

Irailean talde bat eratzea pentsatu, eta Aretxabaletako Autopista Taldea lanean hasi zen. Kaltetuak hainbat izan arren, taldean 12 lagunek dihardute: Oro, Apotza-Etxebarri, Gellao, Galartza, Isurieta eta Arrasateko San Andres auzoko bizilagunek. Guz-



GOIENKARIA

Autobidearen eraikuntza proiektua egiten ari da une honetan Bidegi.

ziek kezka partikularrak dituzte, baina autobideak zarata handia ekar dezakeela uste dute, eta zarata herriaren erdialdean ere sumatuko dela diote. Kaltetuen izan dai-

tezkeen auzoei dagokienez, Apotza-Etxebarri, Gellao eta Galartza aipatu behar. Azken bi horietan, lurra uzteko hondakindegia egiteko asmoa du Bidegik.

Herriko euskalkiaren inguruko ikerketa egingo du Badiharduguk

M.A

Herrian erabiltzen den euskalkiaren inguruko ikerketa egitea eskatu dio Udalak Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarteari. Bi aldeek hitzarmena sinatu bezain laster, euskalkian jator hitz egiten duten aretxabaletarrei elkarrizketak egiten hasiko dira Badihardugu elkarteok.

Xabier Sarasua, Euskara Saileko batzordeburuaren ustez, garrantzitsua da euskalkiaren inguruko ikerketa lehenbailehen egi-

tea. Tamalez, gero eta gutxiago dira euskalkian jator berba egiteko gai direnak, eta horiei elkarrizketak egiteak presa handia du. Sarasuak adierazi moduan, bilketa lana egingo da. Ikus-entzunezkoetan jasoko dira elkarrizketak, eta ondoren, modu errazean erabiltzeko moduan eskura jarriko dute. Hala ere, oraindik guztiz zehaztu barik dute zelan hurbildu jendeari egindako lana. Aretxabaletan ez ezik, Eskoriatzan eta Leintz-Gatzagan ere egingo dute ikerketa bera.

BADIHARDUGU ELKARTEA

Badihardugu elkarteak 2.000. urtean eratu zuten, herri hizkeren eta euskararen alde lan egiteko. Ahozko ondarea batu, eta Deba eskualdeko fonoteka osatzea ditu helburu nagusi. Horretarako, duela urte bi hasi ziren herririk herri elkarrizketak egiten, eta lehendik eginak zeuden elkarrizketak berreskuratzen. Aipatutako hiru udalekin hitzarmena sinatu ondoren, buru-belarri hasiko dira inguruko herrietan ikerketa egiten.

LABUR

Danbaka Musika Lehiaketan sailkatu den Denial taldeko hainbat partaide herrikoak dira

Guztira sei lagunek osatzen dute Denial taldea, eta hiru aretxabaletarrak dira: Rober, Esteban eta Ibai. Gainontzeko taldekideak Arrasatekoak dira, eta hain zuzen, Danbaka Musika Lehiaketara aurkeztu eta aurrera egitea lortu du Denial taldeak. 2000n hasi ziren jotzen, eta death-metal melodikoa dute ardatz. Gaztelaniaz eta ingelesez abesten dute, eta lehiaketan aurrera egitea lortu dutenez, laster Elgetako Espaloia Kafe Antzokian joko dute zuzenean. Ondo arituz gero finalera pasako dira, eta irabazle atzeratzen badira maketa bat grabatzeko aukera izango dute.

Baina herriko talde gehiago ere aurkeztu dira lehiaketara. Bakarlarri bat, Igor, eta beste bi talde ere aurkeztu dira, The Ruders eta Liken, baina ez dute aurrera egiterik lortu.

Oraindik ez dago zehaztuta zein izen jarri kirol etxetik Lausitara bitarteko guneari

Kirol etxetik Lausitara bitartean egingo diren etxebizitzak direla eta, sustapen eta eraikuntzarekin arduratuko den Brues enpresak Eguzkienea izenarekin bataiatu du gune hori. Hala ere, Udaletik jakinarazi digutenez, osoko bilkurak erabakiko du gune horretako kaleak zein izenekin bataiatu. Gauza bera gertatu da Beroa lantegia zegoeneko tokian egiten ari diren etxebizitzekin ere. Udalak oraindik ez du erabaki zein izen ipini kale berri horri, baina eraikuntza enpresak Beroako etxebizitzak deitzen die hasieratik, eta kalean dagoeneko izen hori nagusitu da. Euskara batzordeak emandako aholkuak kontuan izanda erabakiko ditu izen berriak Aretxabaletako Udalak.



Folklore eta gastronomia jaialdia domekan


Domeka goiz eta arratsaldean VIII. Folklore eta Gastronomia jaialdia egingo da herriko plazan. Hainbat elkartetako kideak etorriko dira Gaztela eta Leon, Galizia, Errioxa eta Extremadurako jakiak saldu, eta bertako dantzak eskaintzera. 12:30ean, dantzak eskainiko dituzte herriko plazan, eta baita 18:00etan ere. Gainera, X. Patxaran Lehiaketa izango da jokoa domekan arratsaldean. Irabazleei garaikurra eta dirua eman- go diete. Hainbat lagunek esku hartzen du lehiaketan.



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56



FERRETERIA • BRIKOLAJEA
INDUSTRIA HORNIDURAK

Torrebaso pasealekua 16/ ESKORIATZA
Tel.: 943 71 30 30/ Faxes: 943 71 25 55
urkulu@cadena88.com



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe poligonoa 4, EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
**Lyonel
Arquero**

Dekorazioa:
**Soraya
Arquero**

TRIALSINA

Markel Uriarte lehenengo sailkatu da Euskadiko Trialsin Txapelketan

Infantil mailan lortu du garaipena. Beste bost aretxabaletarrek ere esku hartu dute

MARIA AGIRRE

Aspaldiko urteetan ari da trialsinean parte hartzen Markel Uriarte aretxabaletarra, eta joan den domekan, orain arteko garaipenik handiena lortu zuen: infantil mailan lehenengo sailkatzea.

Oiartzunen jokatu zen Euskadiko Trialsin Txapelketa, eta guztira sei aretxabaletarrek esku hartu zuten. Azpimarratzekoa Markel Uriartek lortu zuen garaipena, lehenengo postua lortu baitzuen infantil mailan. Arabar bat zen lehenengo sailkatzeko faboritoa, baina oraingo honetan aretxabaletarrak aurre hartu dio.

ENTRENAMENDUAK ETXEAN

Markelek 13 urte ditu, eta duela bost hasi zen trialsinean. Larrion bizi da, baserri batean, eta etxearen atzealdean trialsinean aritzeko gunea duenez, bertan entrenatzen da. Baina batzuetan, Udala eta Arantzazu aldera joaten da, haitzetan bizikletaz ibiltzea ere gomendagarria baita. Astean hiru bat orduz aritzen da trialsinean, eta orain, urtarrilean hasiko den Gipuzkoako Txapelketarako entrenamenduetan murgilduko da. Beste urtebetez infantiletan aritu, eta ondoren beste maila batera egingo du salto. Ondo prestatu beharko du, orduan munduko txapeldunarekin lehiatu beharko du-eta aretxabaletarrak.

Kirol arriskutsua ote den gal-



Trialsinean bikain aritzen da Markel Uriarte, aretxabaletarra.

detzerakoan, Markelek ezetz dio, baina gogoan du duela urte batzuk ebakuntza egin behar izan ziotela erorketa baten ondorioz. Hala ere, ez zen kikildu, eta ospitaletik ateratzerakoan, trialsinean aritzeko bizikleta berria erostea eskatu zien gurasoei. Izan ere, trialsinean aritzeko bizikleta berezia behar izaten da: gurpil txikiduna, kanbiorik gabekoa eta esertzeko aukirik ez duena.

Markelen zaletasunak, baina, izan du eraginik, eta bere arreba

Nagorek ere trialsinean esku hartzen du, duela urte batzuk. Oiartzunen, nesketan hirugarren sailkatu zen Nagore.

Baina aretxabaletar gehiagok ere esku hartu zuen joan den domekako txapelketan: Aitor Murua eta Itziar Murua anai-arrebek, Unai Zuntzunegik eta Unai Mendikutek. Aitor Murua eta Unai Zuntzunegik hasiberrien mailan esku hartu zuten, eta bigarren eta hirugarren sailkatu ziren hurrenez hurren.



Hasi da Esku Pilota Txapelketa kirol etxean

Joan den zapatuan hasi zen Esku Pilota Txapelketa, eta bihar jokatu da bigarren jardunaldia. 09:30ean hasiko dira partidak eta 12:00etan bukatu. Lehenengo partidaren Julen Iriondo eta Andoni Iturbek Lier Gracia eta Joseba Otxoa izango dituzte aurrez aurre. Azkenekoan, Jon Ormaetxea eta Gorka Etxebarria Asier Muxika eta J.M. Carrilloren aurka lehiatuko dira.

JOKATZEKOAK

ESKU PILOTA

2004-10-23kirol etxean
09:30ean Iriondo Iturbek-Gracia Otxoa
10:00ean Gonzalez de Durana Galdos-Isasti Isasti
10:30ean Heriz Agerre-Elgezaba Leiba
11:00etan Korta Iturbek-Orue-sagasti Larrañaga
11:30ean Xabier eta Oier Sarasua-Juantxu Uriarte
12:00etan Ormaetxea Etxebarria-Mujika Carrillo

EMAITZAK

FUTBOLA

Zestoa 2 UDA 3
Preferentea.
UDA-ARIZ 1 Euskalduna 0
Ohorezko liga
Orioko. 2 UDA-ARIZ 1
Lehenengo mailako jubenilak
UDA-ARIZ 2 Elgoibar 1
Lehenengo mailako kadeteak.
ATSEDENA
Bigarren mailako kadeteak.
Lagun Onak 3 UDA-ARIZ 3
Ohorezko infantilak

UDA-ARIZ 1 Tolosa 5
Infantil txiki.
Bergara 2 UDA-ARIZ 0
Emakumezkoak F-11
Urola 1 UDA-ARIZM 3
Emakumezkoak F-8

LABUR

Urriaren 27an egingo da bigarren bilera kirolaren inguruan berba egiteko

Udaleko Kirol Sailak beste bilera bat deitu du urriaren 27rako. 18:30ean hasiko da bilera, udaltxeko ganbaran, eta kirol instalazioen gainekoa izango da. Kirola egiteko hamar bat instalazioen aurkezpena egin, eta horiek herrian zein lehenetasun

duzen zehaztu nahi da herritarren partehartzearekin. Igerilekua, muskulazio gela, gimnasiarako aretoa eta sauna-gunea dira horietako batzuk.

Eguazteneko bilera kirolaren inguruan hausnartzeko egingo den bigarrena izango da.

Senior mailako neskek ezin irabazi

Futbolearen, senior mailako Bergarak eta Arizmendi UDAk derbia jokatu zuten joan den asteburuan, eta 2-0 izan zen emaitza. Bi taldeak gogotsu ibili ziren, eta hasieran Arizmendi UDAko neskek izan zituzten aukera garbienak.

UDAK Zarautzen aurka jokatu du partidua, aurreko zapatuan Zestoari irabazi ondoren

Asteburu honetan Zarautzen aurka jokatu du preferenteko UDA taldeak. Partidua etxean jokatu du, eta lehiakortasuna egongo dela espero da, Zarautz hamargarrena baita sailkapenean, eta herriko taldeak jarraitzen dio hurrengo postuan. Gainontze-

an, UDAk joan den zapatuan Zestoaren aurka jokatu du partidua oso ikusgarria izan zen, eta aretxabaletarrek 2-3 irabazi zuten. Joko aldetik UDA nagusitu zen, baina aretxabaletarrek gogor borrokatu behar izan zuten garaipena lortzeko.

L. GONZALEZ


PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

Esko Sport

Intxaurtxueta 5
Eskoriatza
Tel.: 943 71 52 96



GORE TEX XCR

LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

HURRETIK



Pilar Manzano

Pelukerie

Pilar mondraguetarra da, eta agostuen Distrito 33 pelukerixie zabaldu euen Aretxabaletan. Berak esaten dauen moduen, izenak ez dauko yankixekin zerikusirik. Herritarrak ausartak diela esaten dau Pilarrek, ulien edozer egittek kapaz die-eta.

Zelan Aretxabaletan pelukerixie?

Bertan lan egindakue naz, eta jentie ezaguketan dot. Era berien, eurek be ezaguketan naue, eta horrek konfiantzie emuten dau.

Zergaittik Distrito 33?

Mondragueko 33. barrutixen bizi nazelako elegidu neuen izena; ez dauko, batzuk uste dauen moduen, Ameriketako Estatu Batuekin zerikusirik.

Zelakuek die aretxabaletarrak?

Orokorrien, ulien danetik egittera atrebiduten diela uste dot.

Zeñek mozten dutzu ulie zeuri?

Neuri pelukeruek mozten düstie ulie. Gero, baiñe, neuk egitten dot konponketaren bat edo beste.

Ze egitten dozu zeure lana norbaitte ez jakonien gustetan?
Ule mozketie bere nortasunei egokitzen ahaleginketan naz. Hala eta be, orokorrien nahiko gustora urteten daue hamendik.

Garrantzi haundixe dauko estetiekiek gaur egun?

Bai, haundixe, gainera. Neure ustez, bakoitxa eder ikustiek segurtasune emuten dutzo pertsoniei.

Betidanik gure izen dozu pelukero izen?

Bai, txikittatik. Izen be, muñeekin eta lagunekin egin nittuen neure lelengo praktikak.

Badauketzu pelukeroren bat erreferetzia moduen?

Egixe esatiarren ez. Bakoitxetik ikesten da zerbait.

Ze pertsona ezagunek zainketan dau, zeure ustez, asko ulie?

Albako Dukesak eta Anasagastik.

Ze ez zeuskio zeure buruei egingo?

Ez dakit ba, egixe esatiarren danetik eruen dot. Kolore mordue, mozketak diferentiek... Danetik probetie gustetan jat.

Astien zenbatetan garbittu biher da ulie?

Hori bakoitxan buru-azalan eta ule estiluen araberakue izeten da.

Ze egin biher da ezkontza baterako orrazkera egokixe elegiduteko?

Erropa estiluen araberakue izen biherko litzake. Gainera, bakoitxan izaerakin bat egitten dauen orrazkerie topau biher da.


ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

NIREBIDAIAHURA/ Alberto Asensio

Meridatik Santiagora / 2004ko abuztua

Abuztuaren leian irten ziren Alberto eta beste hiru lagun Huelvatik eta abuztuaren 17an iritsi ziren Santiagora. Bizikleta hartuta, Zilarraren bidea egin zuten denbora tarte horretan. "Batzen esanetan, aspaldi zilarraren alderik alde eramateko bide erromatarra da Meridatik Astorgarako ibilbidea; beste batzuek, berriz, Donejakueren biderearen beste etapa bat dela diote. Askotariko bertsioak entzun ditugu". Eguneko 85 kilometro egin zituzten lau lagunek gutxi gorabehera. "Egunaren arabera egiten genuen aurrera. Batzuetan askoz kilometro gehiago egin genituen; bestetan, toki batean geratu eta ez ginen handik mugitzen".

Ez da Albertok Santiago bidea egiten duen lehen aldia; "Ibilbide Frantsesa deiturikoa ere egina dut". Ezberdinak direla dioen arren, aurtengoa askoz ere politagoa iruditu zaio aretxabaletarrari. "Paisaia ikusgarriak aurkitu ditugu Santiagorako bidean. Caceresek harritu nau. Ez nuen uste horren menditsua zenik, ezta hain berdea zenik ere". "Paisaia ikusgarriaz gain, lasaiagoa da Zilarraren bidea egitea", eman digu aditzera Albertok. "Aurtengoa Donejakue urtea izanik, jende mordo animatu da Santiagora joaten. "Astorgara bidean 20 lagunekin bakarrik elkartu ginen. Behin bertara iritsi



"Paisaia ikusgarriaz gain, Frantsesa baino askoz ere ibilbide lasaiagoa da Zilarraren bidea"

"Mendi-bideetan jabetza pribatuetan sartu eta kontuz ibili behar genuen aske zeuden zezenekin"

etan zeudela zenbait jabetza pribatuetan sartu beharra izan zuten. "Ganadu mordo zegoen aske, horien artean zezenak, eta kontuz eta poliki ibili behar genuen gure atzetik etor ez zitezen".

Z.V.M.



Oinez baino, bizikletaz egiteko egokiagoa da Zilarraren bidea.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 79 86 21 telefonora.



Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko urriaren 22a / 183. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Zuriñe Velez de Mendizabal • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

Eskoriatzako euskalkia ikertzeko lana Badihardugu elkarteak egingo du

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Herriko euskalkiari buruz gehigo jakiteko aukera eman-go du ikerketa horrek. Lehen eta orain nola hitz egiten zen, zertan aldatu den ikusi... Eguenean bozkatuko du Udalak ikerketa Badihardugu elkarteari esleitzea. Hilabete gutxira hasia gura luke.

Eskoriatzako euskalkia ikertzeko lana esleitzea bozkatuko dute Udala ordezkariak hurrengo osoko bilkuran. Urriaren 28an izango da, hileko azken egunean. 18:30ean elkartuko dira udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkarteak hartuko du zuzen lan horren ardura. Aurretik euskalkia ikertzeko asmoa zuen Udalak. "Lana lehiaketara atera genuen, baina ez zuten ikerketa amaitu", eman du aditzera Maider Otamendi Kultura zinegotziak.

IKERKETAREN NONDIK NORAKOAK

Lehendik herrian zeuden soinudun zintak hartu, katalogatu eta datu-basean sartzea da proiektuaren asmoetariko bat. Gainera, euskalkia ikertzeko, elkarrizketa berriak



Herriko pertsona nagusiei elkarrizketak egingo dizkiete.

egin beharko dituztela eman du aditzera Badiharduguko Itziar Alberdik. "Katalogazioa eta elkarrizketa berriak egiteko lantaldea osatuko dugu herrian. Bertakoek nahiz

kanpokoek osa dezakete, baina komenigarriagoa da Eskoriatzako jendea animatzea". Horretarako, baina, euskararen inguruko ezagutza beharrezkoa da.

"Pare bat urte iraungo du gutxienez ikerketak", gaineratu du Alberdik. Aretxabaletan hitzarmena sinatuko dute laster; Gatzaga ere ikertuko dute euskalkia.

ARTXIBOA

Euskalkiak urteotan zein aldaketa izan dituen erakutsiko du ikerketak

Elkarrizketak egin eta ondorioak ateratzeko bi urte aurreikusten ditu Badiharduguk

Lantaldeak sortu eta lehendik dauden soinudun zintak katalogatu egin behar dira, esaterako



Menditik bueltan, 140 perretxiko mota desberdin

Jende ugari gerturatu zen asteburuan Eskoriatzara Luis Ezeizako Guraso elkarteak antolatutako jardunaldiara. 40 pertsona animatu ziren perretxiko bila mendira joaten, eta 140 perretxiko mota desberdin jaso zituzten guztira. Arratsaldean, horiek sailkatzen lan eskerga izan zuten parte-hartzaileek; 16:30ean hasi eta 21:00ak arte aritu ziren lan horretan. Kuxkuxero mordoia izan zen herrian domekan, zapatuko emaitza ikusten. /Z.V.M.

LABUR

'Los Caracoles zapatistas' hitzaldia eguaztenean

Datorren eguaztenean, hilak 27, Mexikoko Txiapas herrialdeko etorritako psikologo Cecik hitzaldia eskainiko du kultura etxean, 18:30ean. *Los Caracoles zapatistas. Nueva forma de Gobierno. Situación de los presos en las cárceles mejicanas* izeneko hitzaldian, batetik, matxinoen eskuetan dauden herrien autonomia izango du hizpide. Bestetik, kartzeletako egoeraren berri zuzena eskainiko du; izan ere, laguntza eskaintzen die Cecik lurraldeko presoiei.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

IZENA EMATEKO AZKEN AUKERA II. Eskoriatza Herria Ikerketa Bekarako izenematea amaitzear da. Datorren martitzenean, hilaren 26an, izango da azken eguna. Interesatuak, jo udaletxera.

AXTROKIRENAGENDA

BERTSO ESKOLA ABIAN
Axtroki, AED eta Loramendi Euskara Elkarrekin, bertso eskola sortu dute. Bertan parte hartu gura duten 9 eta 11 urte bitarteko gaztetxoek urriaren 27a dute izena emateko azken eguna. Nerea Urrea arrasatearrak emango ditu eskolak. Egubakoitzetan elkartuko dira Arrasaten, 17:00etatik aurrera AEDko egoitzan. Axtrokiko bazkide direnek 20 euro ordaindu beharko dute; bazkideen seme-alabek, berriz, 15 euro. Hilaren 29an hasiko dira eskolak. "Anima zaitetz ederto pasatuko dugu eta!"


HERRIKO HIRU TALDE ANIMATU ZIREN LEHIAKETAN PARTE HARTZEN

Klineks, Lukas Prest eta The Heilin Trop aurkeztu ziren Danbakara

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Danbaka musika lehiaketara Eskoriatzako hiru talde aurkeztu ziren. Izena eman zuten 43 taldeen artean aukeraketa egin eta hogeik jarraituko dute aurrera. Herriko taldeak kanpoan geratu dira. Hala ere, musika gogoko dutenez, horretan jarraituko dute.

Danbaka Debagoieneko I. Musika Lehiaketa abian da dagoeneko eta Eskoriatzatik ere, hiru taldek eman zuten izena: Klineks, Lukas Prest eta The Heilin Trop. Ez dute lehen kanporaketa pasatu. Guztira 43 talde animatu ziren Danbakan parte hartzera, eta 20 sailkatu dira. Klineks eta Lukas Prest taldekoek aditzera eman dutenez, "ideia ona da horrelako ekimenak sortu eta bultzatzea. Taldeei aukera ematen zaie aurrera jarraitzeko. Hala ere, ez gaude hartu dituzten zenbait erabakirekin ados. Esaterako, epea luzatu izanarekin", gaineratu dute. "Taldea asko ziren eta zail ikusten genuen aurrera



Sailkatu ez diren arren, musika egiten jarraituko dute herriko hiru taldeek.

jarraitzea". Epaimahaikideekin hitz egin, eta soinu on eta txarrak zituzten taldeak sailkatu direla eman dute aditzera, "abes-

tien kalitatea kontuan hartu dugu eta". Hori izan baita herriko musikari horien arduetariko bat. Musika egiten jarraituko

dute aurrerantzean ere. Bestalde, Isarevolution taldea Arrasatekoa izan arren, Eskoriatzako Txotxek bateria jotzen du bertan.



Askatasunaren prentsaurrekoa astelehenean

Astelehen arratsaldean prentsaurrekoa eskaini zuen Askatasunak Eskoriatzako udal txeko arkupeetan. 60 bat pertsonak hartu zuten parte bertan. "Azkenaldian Ertzaintzak eta bereziki ibarrean izan duen jarrera bortitza salatu" gura izan zuten agerraldiarekin. Gogora ekarri zuten irailaren 27an eta urriaren 3an eta 4an 15 pertsona zaurituta gertatu zirela. Hala, zaurituen argazkiak erakutsi zituzten hainbat lagunek prentsaurreko hasieran. /Z.V.M.

LABUR

169 lagunek hartu zuten mendi bizikleta domekan

Guztira 169 lagun elkartu ziren XV. Mendi Bizikleta zeharkaldian parte hartzeko; 54 zeuden federatuta. Askoren ustez, gogorak izan ziren ibilbidearen 43 kilometroak. Euria zela eta, lokaztuta aurkitu zuten bidea. Beste batzuen ustez, baina, ibilbide luzeagoa antolatu beharko litzateke. Gustura amaitu zuten zeharkaldia, eta inguruez gozatzeko parada izan zuten. Berotan sartzeko salda, odoloste eta txorizoz osaturiko luntxa egin zuten guztiek.

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Markoztatze profesionala
prezio ezin hobean!

Herriko plaza 8, behea • Aretxabaleta
943 79 81 78 / 670 997 274

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!


Zure taldearen, auzoaren, elkarrearen... gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

ASKOTARIKO FRUTAK ERABILTZEN DITUZTE EKOIZPENEAN

Ibarreko baserrietako frutak erabiliz marmelada egiten dabilta Jakionen

Z.V.M.

Euskal Herriko mugetatik haratago ere aurki daitezke Jakioneko produktuak. Gure ibarreko elikagaiez baliatzen dira horiek egiteko. Hala ere, batzuetan kanpoko baserriarrek ekarritakoak erabiltzen dituzte. Makatza, mugurdia... erabiltzen dituzte, esaterako, ekoizpenean.


Gatzagako Jakion enpresak eskualdeko hainbat produktu transformatu eta merkaturatzen ditu. Urte osoan hainbat elikagaiekin askotariko produktuak ekoizten dituzte, denboraldi bakoitzean egokitzen denaren arabera. Tomatea egiteko denboraldia igaro ostean, orain marmelada egiten ari dira, esaterako. "Kiwiak eta sagarrak erabiltzen ditugu, besteak beste". Gainera, marmeladan barik, azukre gabeko purean eta almibarrean ere eskaintzen dute fruta. "Azukrerik gabeko pureak inguruko zaharren egotzatarara eramaten ditugu", azaldu digu Susanak.

Garai bakoitzeko janariarekin askotariko produktuak ekoizten dituzte

Susana Aiastui Jakioneko gerentea da, eta erabiltzen dituzten elikagaien jatorria azaldu digu: "Askotariko elikagaiak erabiltzen ditugu eta orokorrean bailarakoak izaten dira. Hala ere, noizean behin ibarretik kanpo bizi diren baserriarrek bidalitakoak erabiltzen ditugu", eman du aditzera Aiastuik.

EUSKAL HERRITIK KANPO ERE

Jakioneko produktuak Euskal Herriko denda askotan aurki daitezke. Hala ere, kanpora joanez gero, zenbait tokitan aurkitu ahal dira. "Madril eta Bartzelona aldean ere saltzen ditugu produktuak".



Askotariko produktuak ekoizten dituzte; orain, marmelada egiten dabilta.

Z.V.M.

Iruñea ezagutzeko parada izango dute Gurelekoek

Z.V.M.

Bihar Iruñea aldera joango dira Gureleko kideak egun-pasa. Goizean irten eta arratsaldean itzuliko dira Gatzagara. 34 lagunek egingo dute bidaia, eta gauza berriak ikasteko aprobetxatuko dute irteera. Gidari bat kontratatu dute Nafarroako kaleetan erosoago ibiltzeko.

Gurelek -Gatzagako guraso elkar-tea-, txangoa antolatu du. Iruñera joango dira bihar, zapatua. 09:30ean autobusa hartu eta Nafarroako hiriburua ezagutzera abiatuko dira guraso eta seme-alabak.

Guztira 34 lagunek egingo dute egun bateko bidaia. Askotariko tokiak bisitatuko dituzte txangoan. "Lehenengo geltokia Iruñeko Planetariumean egingo dugu", eman du aditzera Ana Esnal Gureleko kideak. "Unibertsuari buruzko ezagutza" hantitzeko baliagarri izango zaie bisita Gatzagako lagunei.

"Ondoren, Iruñera joango gara eta hirian zehar bi ordu eta erdiko bisita gidatua egingo dugu", adierazi du Anak. Horretarako, gidari bat kontratatu dute, informazio zehatz eta osatuagoa lortzeko asotan. Arratsaldean itzuliko dira herrira.



Azken bidaia Karrantzara egin zuten; irteera guztietan primeran igarotzen dute gaztetxoek.

ARTXIBOA

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurera!

943 79 86 21

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure
Zerbitzura

ALZA

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontzi

Aingeru ibiltokia 3
Tel.: 943 71 41 31 Eskoriatza 20540

Gastronomia eta Folklore Jaialdia

Urriaren 24an, domekan, Aretxabaletan



CORAZON DE ENCINA
elkartekook
han egongo gara

- Pintxo morunoak • Gazta • Extremadurako ardoa • Urdaiazpiko iberikoa
- Extremadurako gozogintza: erroskillak eta pestiñoa

Araba Etorbidea 3
Tel: 943 79 11 75
ARRASATE

ZENTZUZ ERAIKITZEN DUGU

- Urbanizazioak
- Eraikuntza publikoa eta pribatua
- Eraikin historiko eta berezien zaharberritzeak
- Promozioak
- Zimendu bereziak
- Azpiegitura eta siderurgia



Giza talde aditu eta kualifikatua, azken belaunaldiko teknologiak eta AENORek egiaztatzen duen kalitatezko sistema daukagu, UNE-EN ISO 9001 egiaztatze ziurtagiriarekin.



CONSTRUCCIONES
ANTZIBAR
ERAIKUNTZAK

Horrez guztiaz gain, LAZKANO Taldearen oinarri sendo eta seguruaren laguntza daukagu.



Landeta auzoa z/g • 176 posta-kutxa • Tel.: 943 81 24 62 • Faxa: 943 81 66 19 20730 AZPEITIA
• E-posta: administ@antzibar.com • www.grupolazkanotaldea.com

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!

H A I Z E A



Kafetegia eta taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

B A S A B E

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 79 91 84

Taberna Berri



gaztemenuak

Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

HIRUSTA JATETXEA

Zatoz gure sukaldea ezagutzera



Ilargi plaza 4. Tel. : 943 79 06 57

Mitartegarai



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Mirrentxu



Hidalga 10
Eskoriatza. 943 71 41 67

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

TABERNA

ARLUTZ

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

COMPOSTELA
Taberna

Olagarro espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 55 22

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko

